



PLENTZIAKO UDALAK HARTUTAKO NEURRIAK, KORONABIRUSA DELA ETA

(Plentzia, 202ko martxoak 12). Plentziako Udalak prebentziozko neurri batzuk aktibatu ditu koronabirusari aurre egiteko. Udal gobernua gaur goizean hartutako erabakiak oposizioko taldeko bozeramailerari jakinarazi zaizkio.

Honako neurri hauek hartu dira:

1. Goñi Portalen programatutako ekitaldi guztiak bertan behera uzten dira, asteburu honetakoak barne:
 - Gaur arratsalderako aurreikusita zegoen HIRUKIDEn informazio bilera.
 - Bihar ostiralerako egutegiratuta zegoen antzezlan.
 - Larunbatean publikoarekin galaxien gerraren inguruan egingo zen podcastaren grabazioa.
2. Era berean, prebentzioz ludoteka zerbitzua eta Goñi Portalen eskaintzen den Family Txokoa ere eten egiten dira.
3. Bertan behera geratzen da larunbaterako aurreikusita zegoen Putxera Lehiaketa.
4. Udaletxeko arkupeetan dagoen jostailuen mailegu zerbitzua bertan behera geratu da, baita hozkailu solidarioaren zerbitzua ere.
5. Goñi Portaleko tailerrak ere bertan behera geratu dira.
6. Prebentzioz, liburutegia ere itxi egingo da.
7. Infopuntua eta Topalekuko jarduerak bertan behera geratu dira.
8. Jai Alai frontoiko jarduerak ere bertan behera geratzen dira.

Neurri hauek jubilatuen etxearen itxiera prebentiboari gehitzen zaizkio, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Euskadiko udalerrri guztiei atzo egin zien gomendioa jarraituz.

PLENTZIAKO URI-UDALA



AYUNTAMIENTO DE LA
VILLA DE PLENTZIA

BIZKAIA

Neurri hauekin ez da alarma sortu nahi. Bizi dugun ziurgabetasun unea dela eta, zuhurtzari eta prebentzioari erantzuten dieten erabakiak dira.

Neurri hauen helburu nagusia koronabirusaren hedapena geldiaraztea da.

Udalak ez du baztertzeko datozen ordu edo egunetan, ildo honetan neurri gehiago hartzea.

Udaletik aldeztu aurretik barkamena eskatzen dugu erabaki hauek herritarrengan sortu ditzaketan eragozpenengatik eta bizilagunen laguntza eta arreta eskertzen dugu.

Informazio gehiagorako:

Iñigo Aranbarri

688 621 860

aranbarri@sormen.eus